

Neguaren otza
 itsumustuan
 ager yaku.
 Begia, barriro,
 pozik eztala,
 malkoz dozu.

* * *

Gazte pauts-aundia,
 oiñotsa dantzut
 aldatz beera...
 Jakin ez geroa;
 zoria dogu
 txit gupera.

LEA IBAIA

Sarats ta milizkaz inguratua,
 lirain dabil Lea, lamiña zulo!
 Goi-errietako basur gardenez
 asetuta, oa otzan ta arrosko.

Oleta'tik bera, suge geldia,
 diztikor akusta, bai, bitsetan naro;
 arnas dagik, alan be. atsegiñez
 eta ixil ortan dok ames itxaso.

Armiña artzuloko lamiñ gazteak,
 auntz-oin ta sai-erpe, doaz įgana.
 Bada or baraille gau gerizean
 intziri gozoa sor oi dauana...

Ik maite lamiñak, ta areik ots iri:
 «Ez gu, otoi, billois itxi, laztana».

Ni be, or jaioa, intziriz nabil,
 zaindu naiz igandik jaraunts nebana.

OIÑAZEZ NAGO!

Eguna odol-gorri sartzean,
 gabaz ozkarbi egon ba'daite,
 gaur be, ene maiteño, illargia
 agertuko da, uts egiteke.

Bart, ona, bide zearretatik
 amesezko besoz genbiltzala,
 zeruaren azpi urdiñean
 argia ager yakun bereala.

Baiña samiña ekarten pozak.
 Ordu laburto areik min-osin
 ditut orain; nik ori ez uste!
 Egi zirudiñak trankart egin!

Ez neban uste alako poza
 iñoiz baltz biurtuko yatanik.
 Amestu nitun torre putz areik
 nik ez uste jausiko ziranik.

Gaiñ etor yatanaren errua,
 neurea dot. Zergaitik nik ete,
 bizi nai rebanaren aroma
 ondar gaiñean moldetu tente?

Gaizto az, maitasun, iruzurti,
 įas-erakuts; leun az agertzen;
 dana dok errez, atsegingarri,
 ta gero, ai!, sastada emoten.